29.arren URTEA. | Nº 1460
29e ANNÉE.

LE NUMÉRO : 5 CENTIMES

ORZIRALEA APHIRILAREN 23an | 1915
VENDREDI 23 AVRIL

Herrialde guzietan toki onak badira;
Bainan bihotzak dio : zoaz Eskual-Herrira

# ESKUALDUNA

## JOURNAL BASQUE-FRANÇAIS HEBDOMADAIRE

**ABONNEMENTS**
Pays Basque.................. 4 fr. par an.
France....................... 8 fr. —
Étranger..................... 10 fr —

**REDACTION ET ADMINISTRATION**
69, Rue Bourneuf — BAYONNE — Téléphone 2.20

L'Administration décline toute responsabilité en ce qui concerne les annonces.

Eskualdunak eztu on egiten hemen agertu « annonces » direlakoez.

**PUBLICITÉ**
Chronique locale........... 1 fr. » » la ligne
Réclames................... 0 fr. 60 —
Annonces................... 0 fr. 40 —
Les insertions ne sont admises que sous réserves

## ZILOETAN

Zerbeit ikusirik daude gure soldado gaizoak beren ziloetan, eztea hala? zortzi hilabethez, bereziki neguan, euriarekin, hotzarekin, elhurrarekin egun eta gau; zangoak belhaunetaraino hormatuak batzuetan; bertzetan gerrirainoko urean igeri; noiztenka bulharretan gora gaindika; ihes egin behar, ez ithotzekotz hanche

Hola bizi ala hil, zoin othe da hobe, zuen ustez? Diote, — sinestea ez baita errech — soldado hanitz badirela ziloetan bizitzeak on gehiago egin baitiote, kalte baino; ahultze orde, azkartu baititu; eritze orde, sanhotu, gogortu, sorhaiotu eritasun guzien kontra.

Lehen oro eztul, oro zintzurreko min; orai sekulan deus, ez eta marhantachka bat ere.

Lehen soineko aldagi, ohe bero, tisana eta maina, sekulan ez aski; orai bethi, lohipean, bethi bustiak; barneko ala gaineko jaunzturak oro ur-hanutak; su pochi baten pizterat ere gauaz ez haizu, suaren argia etsaiak ikus beldurrez; eta esku lanak bizkarreko larrua, ahurreko azala loditzen, zailtzen duen bezala, ezacholarazten norapeit gorputz guzia soldado hanitzi.

Ez orori, ez eta bethi gotorreneri. Halako batzu kraskatzen ditu ziloetan bizitzeak; ihia bezen ahulak bertze batzu pizkortzen zituelarik.

Ba eta, bitchi dena, gizentzen ere zonbeit.

Halere, dezagun aithor egia : on baino kalte gehiago ziloetako biziak, bana bertze. Zonbat erromatisma, bulhar galdu, eztul gaichto, zango hormak hil, moztu behar ukaiteraino! Zonbatek ez dute zilo hetan ja bizia utzi edo laburtu!

Osasuna behin bethikotz galdu, zonbatek !

Gogoratzea da gehiago, gerlaren egitea lurpez, gizonak azkon, basurde, sathor batzu balire bezala.

Eta nori behar holakorik gogoratu, eta noiz? Mende huntako eta aspaldika popolurik urguluntzienari; bere jakitateaz, jendetasunaz, espantuko bethi ahoan duten *civilisation*... alemanez *kultur* delako hartaz espanturik aski egin ez dezaken populuari!...

×

Orizue, jende onak; norbeitek, duela bizpalau edo gutiago urthe, — zer diot? — jaz, erran balauku, aurthen gerla behar ginuela, nork sinets hoin luze iraunen zuela? Itchurarik etzuen.

Ez zireztea orhoit, hor behera lehenik joan ziren eskualdun gazte gaizoek zer zioten etchekoeri eta auzoeri adio erraitean : « *Umia-Sainduko hemen gira berriz; eztu iraunen gerla, hunek; eztezake iraun.*

*Oraiko tresna izigarriekin* ... Hilabethea gabe leher eginen da goiti edo beheiti, norapeit ».

Egunak, asteak, hilabetheak joan dire. Agian ezta urthe osoa joanen, gerla madarikatu hau bururatu gabe. Agian.. Bainan nork daki?

Labur iraut ekoaren itchura guziak zituelako gerla, huna non doakigun etsigarriki luze. Nori esker? Noren nahiz?

Alemanak nahiz hola, haste hastetik; alemanaren thema tzarra zelakotz; bere ziloetarik nehork ezin jali-arazizko buru-gogorra, mando burua baino areagokoa.

Komunzki bi etsaietarik ahulena, beldurtiena da lurpean gordetzen, edo salbaiena, iguzkitara jazartzeko gutienik on dena. Zerk dio gogorat eman gudu izigarri huntan, zilo batzu lurpean eginik, hetan sartzea, iduri beldur, etsaietarik azkarrenari?

«Nor naiz ni? Beha hunat ene itchura eder, aphaindura distiant eta indar gaitzari... Beha orok »... Eta urguluz larruaren barnean ezin egona lothua zaion oren berean horra non zaukun bere zilo ihlun beltzetan kukutu.

Etzaioke huni erran : «Harria bota, eta eskua gorde ». Erran behar da, izaitekotz : «Ehortz gizona bizirik lurpean, eta handık ar tiroka »

Alemanaren bertze ahorekeriekin emaiteko on da garbiki, hori ere.

×

Nola zaioken gogoratu, galdez. Gogoratu, nola? Bertzerik ez ditake ihrdets, baizik ere hau : « Jainkoaren nahiz. Jainko on hark, ororen buruan, Frantzia nahi baitzuen salbatu, eta Frantziarekila koak. -- Zer? Arroil-erreka itsusi hoik, zilo beltz hoik Jainkoak nahi zituela, gure onetan? — Ene eta bertze hanitzen gogora ba.

Alabainan, gauzak diren bezala ikusi nahi dituenarentzat zilo hoiek gaituzte hastapenean begiratu, gu, Frantsesak, orduan ahulenik ginenak.

Eta huna zortzi, ja hurbil bederatzi hilabethe, zilo hoien gerizari esker iraun dugula, eta iharduki etsaiari.

Zilo hoik gabe, gureak egin zuen, *ez baikinen prest*: gerlako baitezpada behar direnetarik asko eta asko eskas baikinituen.

Eskas, guduari lotzeko, *Charleroi*-ko gudu lazgarriak berehala erakutsi zaukun bezala; eskas, ordutik lasfter, *la Marne*-ko garhaitze aiphagarri hartan, erhaustera gineraman etsaia utzi behar ukan baikinuen, ihesi zoala, tresna eta tresnen hazkurri eskasez, artilleria eta bertze.

×

Hastapen hartan eta geroztik, egungo egun hauk arte, *tranchées* direlako ziloek eman daukute has aitzinean eskas ginituenak ondoan egiteko ahala; guziz dembora.

Etsaiak 44 urthez gerlarentzat egin lanak, nola egin guk zonbeit egunez edo astez? Zer dire zortzi aste edo hilabethe? Ontsa pentsa-eta zer zitazken zortzi urthe ere? Ez. gerlaren egiteko, bainan *preparatzeko*? Hamar eta hogoi urthe ere, zer, berrogoi-ta lauri beha eta?

Errazue : mirakulu bat handia eztea, hainbertze gerlako tresna eta puska: bala harmada, kanoi handi eta ttipi, batzu zahar berrituak, bertzeak osoki berriak, egin baititugu, zortzi hilabethez?

Lurpean sartze beharrik etzuten alemanek... Guk ba, zilo hetarik etsaia lekhorderian atchikiz, lan gibelatua egiteko. Guretzat arizan dire, ustegabetarik, alemanak, zilo egitean, beren kaltetan.

Jainko onak du hori nahi ukhan.

Orai zilo eginak egin, hetarik debruak ezin atheratuak izanen direla baitiote, gerlaren finitzea berandetsia dutenek, bego Jainkoa; harek emanen dio, gure onetan etsaiari gogora, zer egin.

Anhartean, guhauri gure bihotz aitharik sekulan bururat jinen ez zitzaukuna, horra hor lur zilo hastio tzar hoitan Jainkoak nola zaurgan gure salbamendua.

## Berriak egunka

*Asteazkena, apirilaren 14an*

*Les Eparges* mendi hegal eta gain hura, zerbeit gostarik gureak, berriz hartu nahi ukhan daukute; haren orde harturik zafraldi bat ona, gure artilleriak emana, gibelerat egin dute.

Orobat dute etsaiak; hura eta halako bertze asko, ez dauzkate eremanik. Galdua gal.

*Zeppelin* direlako tresna hetarik bat etorri zauku aireti; bombak botatzen *Bailleul*-eko hiriari.

Bertze bi aireko, « *avion* » deithuetarik itzulipurdika erori zaizte gure lerroen erdira.

Italia, gure alde lotzeko, azken prepairuetan omen dugu. Ez irri egin; oraikotik ezta aireko solasa. Esker guti dio Alemaniak bere adiskide lagun ohiari, zeren dagon geldirik. Otrichiak are gutiago.

Heiekilakoa, nahi eta ez, egina du.

Ikusiz geroz, heietarik eztuela zeren, hemendik harat, deus onik igurik, anglesari eta guri dago. Eztezake luza; egunetik egunera gureagotuz doakigu.

Greziak ere guti aski duke, gure alde jartzeko, erregek nahi ala ez.

Egungo berririk handienak, hoik dire.

*Ortzegun, 15ean*

*Zeppelin* aleman bat badabila bombe aurdikitzen Angleterrako itsas hegiz hegi; gure *avion* bat, ordainez, aleman aitzindariak biltzen diren tokiari kanoi ukaldika.

Kasik orotan ari gitzazko gainaren hartzen.

*Ortzirale, 16an*

Airezko gerla noraino behar othe zauku hedatu? Atzo *zeppelin* bat, egun biga dituzte igorri alemanek Angleterrako leihor hegien izitzera; 35 bombe botatzerainokoan. Ondorio guti.

Gure chori gizon *Garros* aiphatuak taube (urso) deithuetarik bat uzkail-arazi du.

*Larumbat 17ean*

Barda oldar gaitzean jazarri zauzku, *Notre-Dame-de-Lorette* hartu nahiz. Iharduki diotegu.

*Aisne* ur handiko aldean harpe zilo batzuetan gorderik baitzauden gure kanoi handien tiroek zapart egin-arazi diote hanitz tokitan.

Alde batetik ala bertzetik, artilleriak dauka, orotan kasik, egunaren goiti beheitia. Maizenik, gure artilleria nausi, ez bada berehala, bederen arratsekotzat.

*Vosges* mendi gainetan eta behereko zolan, ur-hegiz ur-hegi, aitzinatuz goazi.

Beljikan, angles *avion* batek aleman bat uzkail-arazi du eta frantsesen arterat aurdiki. Gidaria hil eta so-egilea bizirik gelditu gure eskuetan preso.

*Igande, 18an*

*Alsacen*, aspaldian egin zuten indarrik handiena eginik, bereziki artilleriarekin etsaiak ezin garhaitu gitu. Hil hanitz utzirik eta presuner multzo bat, etsitua, joan da gibelerat.

Beljikano gizon-chori batek pusketan aurdiki du aleman gizon-chori bat, *Roulers*-etik hurbil.

*Carpathes* mendietan Rusoek « *à la baionnette* » garhaiturik etsaia, mila eta ehun eta hamasei presuner hartu diozkate. Hilak bertzalde; hil hanitz.

Turkoak, Alemanen uztarria lephotik, akhituak omen dire.

*Kolera*, gaitz lotsagarria ere tokitan hasia omen dute, ez baitzuten deus beharragorik.

*Torpilleur* batek berriz horra non deien zapart egin, ehun bat gizon hanche gelditzen direla ithoak.

*Dardanelles-etan* aro gaichto eta zer [...]ien gatik, angles untzi batek egin gu[...] men urhats bat handia eta leihor hiri du o[...] bat [...]anoi-ukaldika chehatu.

*Astelehen, 19an*

Otr[...]chia, gerlaz asea, baketu nahiz dabila. Aita Sainduaren arartekotasuna [...]a galdgina, galdatzekotan dela ez badu [...]k daki ? Ageriko. diote. No[...]andiaren hegietan alemanek *Yser* ur-h[...] baitzuten orotan afichatua, gaina zutela egin kukuruku oharturik, goizegi zutela [...]ro kendu dituzte, eta beren afichak [...], diotelarik : « *Indar* bertze batzu ezar[...] *gizon hanitz galdu* ». *handia egin dugu eta* [...] horitzen dutenean, Berek hori hola ai[...]n gelditaak [...]arek. pentsa zer muthurreko ahal diren. [...]azinek,

*Serbia* eta *Grezia*, makurtzera zo[...] bakea egin dute. Hobe. [...]an

*Otrichia* eta *Bulgaria*, bakezko solaset[...] zirenak, makurtu dire. Hobe, hobe!

Bizia itsuski kariotzen ariz Otrichian, ezin gehiago kechu omen dire bazterrak oro.

Grek itsas-untzi bat jauz-arazi dute alemanek; ba, on bazeie, pagatu beharko ere. Egin bezate, egin holako. Ukanen dute geroago eta gehiago etsai. Hobeee ! .

*Astearl, 20an*

Italia oraikotik lanean ari da gerlari buruz, karraskan.

Hamar presuner aitzindari aleman eta otrichiano espakatu dire Rusiatik. Hiru bizirik hatzeman dituzte, bertze zazpiak hil dire hotzez, nekeduraz eta gosez.

Japoniak bere itsas-untziak sar-arazten ditu bere leihorretarat; zer chedez othe? Alemanak guk baino griña gehiago duke, zeri dagon hor.

Rusoak aitzinatuz doazi; choilki Poloniako aldean, horma urtzearekin, lur guzia lohitua omen da; nehor nehorat ezin higi. Han diren alemanak hirrisku handitan omen dire; ichtilpe hartan geldi beldur. Agian ba!

*Garros* gure chori-gizon famatuenetarik bat, bere tresnarekin jautsirik ezinbertzez, etsaien eskuetara, preso hartu dute dute igandean. Damu da!

## LES ALLOCATIONS MILITAIRES

Le journal *Eskualduna* du 9 Avril, en reproduisant le texte d'une partie de la Circulaire de M. le Ministre de l'Intérieur de Décembre 1914, et en insistant sur l'application ferme de la loi, engage les femmes des mobilisés à réclamer la totalité de ce qui leur est dû, à compter du jour de la demande initiale.

Si l'on comprend bien la lettre de la circulaire, il s'agit en effet d'un droit même pour les familles qui paient une petite contribution foncière et celles aussi dont les chefs mobilisés paient une patente pour un petit commerce continué par leurs femmes.

Mais des instructions diverses ont servi à l'interprétation de la loi.

Se conformant aux premières, les Commissions ont éliminé un certain nombre de demandes et n'ont accordé qu'un nombre restreint de majorations.

Depuis, se conformant à la Circulaire de Décembre 1914, elles se sont montrées plus larges dans l'examen des demandes, et ont accordé les majorations pour tous les enfants.

D'où des réclamations fondées, faites par les premiers demandeurs écartés, auprès des Maires, que l'on n'hésite pas à mettre en cause.

Les Commissions Cantonales et des Municipalités ont demandé que tous les intéressés bénéficient de l'application intégrale de la loi, et que rappel soit fait des majorations non accordées jusqu'à l'application de la Circulaire de Décembre. Mais la Commission d'arrondissement de Bayonne refuse de faire droit à cette demande, dont la solution paraît cependant si aisée.

En effet, et sans qu'il soit besoin de produire une nouvelle demande, il semblerait qu'une autre procédure pourrait être suivie, d'office, pour arriver à une solution rapide.

Il suffirait de faire réviser par les Commissions compétentes tous les dossiers des demandes présentées, et d'accorder aux femmes déjà admises, c'est-à-dire reconnues nécessiteuses, toutes les majorations pour les enfants au dessous de 16 ans qui figurent sur les demandes.

Cette révision permettrait aussi d'admettre certaines demandes trop rigoureusement écartées.

*Un maire du Pays Basque.*

## ESKUARAZ

Frantses horrek zer dion ez dakizuenentzat, huna, ez hitzez hitz, bainan frango cheheki, zer erran nahi duen.

Hastetik beren senharrak suko alderat joanak dituzten emazteki hanitz errenkura dire, ez dutela ukan, ala berentzat ala beren haurrentzat, geroztik joanak dituztenek bezala edo bezenbat eta hortaz beren herrietako mereri dire aiher. Merek hortan deus hobenik ez dute; bainan huna zer den gertatzen.

Hastean manua zen, laguntza hoien chimenki emaiteko, eta arras beharretan zireneri bakarrik. Gero, neguan, abendoan, gerlako ministroak erran zuen eman zitazkela ausarkiago, lur zenbeiten jabe edo tratulari bezala zerbeit zerga pagatzen zutenari ere.

Ordutik laguntza hoik ausarkiago eman dire. Gure herrietako merek galdatu dute berehala, arabera hortarat, lagunduak izan [...]ten lehenago ardietsi ez zutenak ere. [...]nan Baionako komisarioek ez dute Ba[...]orik onetsi nahi.

holak [...]ko? — Ez dakigu batere. Bizki- Zerta[...]uri luke guziak errechki hein tartean, i[...]n ditazkela. — Galde hoienbererat ema[...]egin ziren paperak hor dire tzat hastean [...]e heien berriz miaraztea, oraino. Aski litek[...]; eia emazteak goberikusteko zer dioten[...] ardiets dezaken, namenduko laguntz[...]kenik igorri magerlako ministroak az[...] nuen arabera.

Emaztea ja aski behardun ezagutua balin bada laguntzaren ukaiteko beretzat, eman bezote berdin hamasei urthez azpiko dituen haurrentzat ere.

## Gerlarien berri

Aste guziez hemen gaude, begiak churiturik : noiz ekarriko dauzkun *fakturrak*, *pietunak*, — emozue nahuzuen izena — gerlarien berri ahalik gehiena.

Aste bat edo biez barur egin arazirik, herenegun gaztiatu dauku hango berri heltzale jarraikienak, atzo ukhanen ginuela berri zama bat ona. Hemendik haraino aditzeko *milesker* oihu bat egin diogu berehala.

Atzo berririk ez; egun berririk ez. Treina huts egin dukete guk hemen ahoa zabalik iguriki berriñoek.

Heldu den astekoek agian ahantz araziko dauku egungo eskasa.

Anhartean, Jainkoak igorri othe daut atzo, huts hunen bethetzeko, *Eskualdunean* ez baita huts ttipia, *Gerlarien berririk* ez!... letra bat eskuetara, uste gabeko atsegina! Huna zer eta nolako.

Gerlako berriak nork ditzazke, zuen arabera, hobekienik eman? Soldado aitzindari handienek, argituenek araiz, eztea hala?

Arren jeneral handi baten letra da, — ahantto halere — nik atzo irakurtu letra eder, hunkigarria. Ez eni buruz igorria jeneral handi harek — nahiz jakin berri dutan, zuetarik zenbeitek bezala. *Eskualdunaren* egiletarik bat, eta hura hau, *zuen zerbitzaria*, Parisen zela berriki, bakerako lehen solasetan bere hitzaren erraitera joana hango jaun heieri.

Solasak ekarririk, erraiteko baizik ezta, zer charboak osorik eta gordinik iretsarazten dakiten buru-buztanik gabeko berri egile batzuek, gutarteko jendeari!

Othoi beude haur eheak haurrentzat. Zentzuaren adineratuek atseginekin duzuela irakurtuko daukat hauche : Frantziak egun hautan bere armaden aitzindari dituen hiruzpalau jeneral handienetarik batek ahaide hurbil bati, hots, bere aneiari, joan den astean izkiriatu diola letra bat ona, ezin hobea; paria bainezakezue zuetarik batek eztuela ukhan, handik hunat, hoin letra ezti, gozo, bihotz altchagarririk.

Konfiantzaz bethea ; berandetsia ba, zuek eta nik bezala, gerla hau bururaturik ikustea; bainan azkenean irabazteaz duda mikorik.

Garbiki diola, bertzeak bertze : hurriki egin lanak ez balinbadu *orai* zalhukiago baloa bezenbat esker, askarrago dela izanen, iraunkorrago eta odol gutiagoz egina.

Anhartean, oraidanik gaina dukegula nahi dugunean. Hitzez hitz, haren azken lerroa huna : « *Nous allons à du bon, à du très bon* ».

Eskuaraz erran nahi baitu : « Onera goazi, osoki onera ».

Holako batzu ez sinestekotz, nor sinets?

Erran den letra bere aneiari izkiriatua soldado aitzindari harek, aneiak adichkide bati heldua hunat, dut beraz irakurtu, etche batean ene egitekoz gerthaturik.

Egin dautan atsegina zuentzat ere on zitakela iduriturik dautzuet saltzen berri hau, gosta prezioan, eta ez bertze chedez.

Handikari, eta « holakoa ezagun, halakoa elhaire » dariotenik ezta, Jainkoari esker, oraino nehor *Eskualdun*-ean.

Ez eta izanen agian gure ondokoetarik ere nehor.

## Eskual-Herri

### KONSEILU JENERALEAN

Apirileko bilkura, urthe oroz egiten dena, biziki labur joan da oraiko huntan; oro bi sar-atheraldiz egun bezean.

Hilabethearen 12 goizean bildu dire gure gizonak; diru chahutze batzuen goiti beheitiaz mintzatzekoak ziren bereziki, edo kasik bertze deusez, hartaz baizik.

Goizean komisioneak behin irakurtu ditu Jaun Prefetaren chedeak; onhartzeko zirenez gero arratsaldean ororen aitzinean mintza, zer zitzeien.

Arratsaldeko biltzarrean, kontseilu Jeneraleko Buruzagi *Barthou* ministroaren ordaingoa egin du *Cataogne* zenaturrak.

Biak eta erdiak ziren.

Chutitu deneak Buruzagi Ordaina, mintzatu da bilkura guziaren izenean, Barthou Jaun Ministroak bere seme bakharraren gerlan gaitzeaz orok duten

bihotzminaz, bere baitharik zelakotz ere joana surat, adinera gabe ; eta gero, egun hautan berriz bere aita hilik ministroak ukan duen bigarren nahigabeaz ere aiphatu du hitz bat.

Ikustate bat bilkurako lagunetarik buruzagiari, orotan egiten dena, gizontasunez baizik ez balitz ere; areago gerla demboran, herritarrek orok elgarrekin bat egiten dugulako seinale.

Arratsaldean, batzu bertzen ondotik irakurtzen dituzte mintzatu behar zirenek beren erraitekoak. Irakur arau, orok ororí *amen*, nehork hitz bat kontra ihardetsi gabe.

Bi galde bereziki onhartuak izan direnetarik dire guretzat aiphagarri : bat abere haz-geiez; bertzea aleman presuneren hemengo lan batzuetako baliatzeaz.

*St-Jayme*, aspaldian gure herrialdea zaldiz azkar atchikitzeari jarraikia den Jaun kontseilariak galdatzen du ez dadin haizu izan ume egiteko on diren behor eta behokak tropetako zalditzat saltzea.

*Dufourcq*, bertze Jaun batek bere aldetik galdea : gure aberetegiak berriz hein oneraino bethe arte, debekatua izan dadin migarik haragitako saltzea.

Holetan ardietsi dute Jaun hoiek, beren bi galdentzat, lagunen baia.

Jaun Prefetak hitzeman du ahala eginen duela departamenduan dituzkegun presuner alemanen ar-arazteko egin beharrak dauden lan publikoetan, hala nola *tram*-etakoetan.

Diruaren empleguaz aiphatzea balio duen ez-bairik gabe hitzharturik, joan dire Jaun kontseilariak zoin bere alde, lauak eta erdietan.

Hortan hetsi da, labur eta on, apirileko bilkura.

Erran gabe doa, elgarri esku eman baino lehen eta agur, bertze aldi arte, gure gizonek goraki onhartu dituztela eta laudatu bihotz guziz gure soldado aitzindari on aiphatuak eta Frantziaren armada ederrak, erranez heien baithan daukagula geroago eta gehiago gure konfiantza osoa.

## ASISETAN

Huna Paue-ko auzietan *jurés* agertuko diren zenbeiten izenak: Joseph *Goyetche*, Saratarra; Martin *Esain* zapatain Hazpandarra; Laurent *Garat*, Iholdiarra; *Cedarry*, Bidarray-ko auzapez ohia; J.-B. Amespil, Hazpandarra; Michel *Etcheverry* Ahezterra; Vincent *Etcheverry*, zurgin Bardoztarra; Etchats Bithine-koa; Eñaut *Pribat* laborari Monkayolle-koa; E. *Haristoy*, bolanjer Donibandarra; Pascal Lahetjuzan, Sempere-ko Auzapeza; *Canuyt*, Donibane-ko botikarioa.

**BAIONA.** — *Pierre Laharrague* jaun apez, Baiona katredaleko kalonje Lekhuinen sorthua, Basses-Pyrénées-ko departamenduan, urriaren 1an 1829an, Jean-Baptiste Laharrague eta Jeanne Marie Etcheverry-ren ezkontzatik, hil baita Angelun hazilaren 11an 1914an, Detchart, Bayonako jaun notari, ondoriotasunarentzat egitekoez gizon ezarria denak othoizten ditu hilaren aita partetikako ahaideak, ager diten eta beren zuzenak ager ditzaten lehenbailehen.

## DERRÉCAGAIX

Izen hori « *de Errekagaitz* » eskuara garbienetik da. Chubero *Sohuta*-ko etchalde zahar bateko seme zen, hor hil delako jeneral aiphatuaren aitaso eskualduna.

Herritik soldado joan eta behingo soldado gelditu, noiztenka sor-etcherainoko bat eginik ere arroztu zitaken emeki-emeki sor-herri eta sor etchearekin amiñi bat, Errekagaitzeko nausia.

Baiona alde huntan kokatu; haren seme bat medikuturik baionestu. Halere... behin atchiki zuten Chupberoko sor-etchea, bordaritan emanik.

Azkenean saldu herritar familia itsasoaz haraindiko itzulia eginik onthu bati, esku beretan baita oraino.

Baionan zen sorthu jeneral hil den hori 1833an. Beraz 81 urthe zituen.

Kargutik kargura, behin gerlan ibilirik, gero soldado aitzindari-geier eskolemaiten ; gero gerlari eta soldadogoari doazkon liburu eta bertze buruzko lan handi egiten, bizi bat ederki bethea iragan du, lanari emana osoki.

Hiruetan hogoi-ta hamerreko gerlan Alemaniarat preso ereman zutelarik, lana etzuen utzi. Gerla hartako chehe tasun hanitz eman zituen izkirioz, hari esker baizik ez emen baitazkigu.

Oraiko gerla huntaz osoki hartuak zituen burua eta bihotza; berri guzieri beha zagon, ziolarik : ontsa nahi zukela gazteago izan, hor harat joaiteko 1870 eko hartzen bilha.

Zer atsegina zitaken hura zen soldado zahar frantses kartsuarentzat, gerla hau Frantziak irabazten ikustea!

Eskualdun fededun semea baitzen, zahartzeari buruz gero-ta gehiago Jainko legeari zagona, behartu zaio, begiak hetean ere Jainko on hari baitzagon.

Bertze mundutik ikusiko du laster Frantziaren bitoria, eta gero agian behingo bakea!

**DONIBANE-LOHIZUNE.** — *Kaleako* bortz seme gerlara ganetarik bat, *Jochep*, Alemanian hil da. Preso zagon tokitik martchoaren hogoi-ta seian izkribatua zuen etchekoeri : arras ongi zela.

Bertze letra batek, martchoaren hogoita zortzian eginak, jakinarazi du familiari *Jochep*-en heriotzea. Seme gaztenaren berri rik gabe daude *Kale*-an zazpi hilabethe huntan. Bigarren semea, gerlaren hastapenean kolpatua izanik, berriz han harat gana da.

**DONAPOLEO** — Joan den ortziralean, soldadoentzat erosi dituzte hogoita hameka idi eta behi buru. Idikia, hogoi, hemeretzi sos kiloa; behikia hemezortzi, hamazazpi, hamasei sos.

Behi bakar batentzat ez dute eman hamabortz sos baizik kiloko.

**SAINT-JEAN-PIED-DE-PORT** — L'*Eskualduna* a déjà relaté la belle citation à l'ordre du, jour de notre vaillant Député M. Jean Ibarnégaray.

La *Liberté du Sud-Ouest*, sous la plume de son distingué Directeur M. Paul Duché, lui a consacré tout un article de fond dont nous sommes heureux de reproduire le passage suivant :

Avant d'être au premier rang de nos armées, M. Jean Ybarnégaray était au nombre des députés clairvoyants qui ne voulaient point que la France pût être surprise par l'agression d'un ennemi de plus en plus menaçant.

Il disait la vérité tout entière aux patriotes des Basses-Pyrénées, quand il écrivait dans le programme qu'il soumettait à leur raison et à leur conscience :

« La loi qui a porté à trois ans la durée du service militaire était indispensable pour mettre notre armée en état de défendre victorieusement ses frontières contre une agression extérieure toujours menaçante. En l'état actuel de la situation européenne, en raison des incessants et formidables armements de l'Allemagne, *cette loi de salut national doit être maintenue et appliquée intégralement* »

Après avoir donné à ses électeurs, avant la grande mêlée européenne, cet avis sage et désintéressé que lui dictait son patriotisme, M. Jean Ybarnégaray leur donne aujourd'hui l'exemple de toutes les énergies, puisque ni « une maladie grave », ni « la blessure qu'il a reçue, n'ont pu le déterminer à s'éloigner, comme il en aurait eu le droit, de son poste de combat.

Qu'il reçoive ici nos chaleureuses félicitations, et que nos vœux, avec nos sympathies, accompagnent sa vaillante jeunesse!

Paul DUCHE.

## KOPLARIER

Egun eztugu emaiten koplarik, ezin helduz. Ja behin edo behin errana, dezotegun hemen bi hitzez begien aitzinean laburzki eman koplarier, *biholzez* ororí esker diotegula beren borondate onaz; bainan othoi ez dakiotela gaitzi, luzamen pochi bat balinbadugu ardura, Eskualdunerat jin koplen emaitean; ba eta zonbeitekin luzamena baino gehiago.

Hoberenek berek ardura beren koplak tarrapatan eginik, nola nahi, kasik agertzeko ez on, edo artha eta ephe gehichagorekin doble hobeki loazkenak daizkute igortzen.

Zertako presa? Zertako ez gehichago phereka eta legun berek beren lana?

Guk badugu bertze egitekorik, eta ...ez gira koplari, nahiz ezten baitezpada hala izan behar, kopla chuchen ala makur, ezagutzeko.

Lan guziak bezala da kopla-lana; artha nahi du; ba eta bertze edo zoinek baino gehiago.

Langile beraren eskutik eta bereziki dakienarenetik lan berak bertze itchura du aizinaz eginik, ezen ez nola nahika.

Erdi ontsa, erdi gaizki, — ez jakinez — egin batzu aldiz altchatzen ditugu, ondoko astean emaiteko izpi bat aphaindurik.

Altchatu ba altchatu?... Han daude lo, iratzarlearen beha.

Kopla izena ere merezi ez dutenak dire lotsagarrienik. Ostatuan gauaz, edanaren bero hartan, iduri zerbeit. Iguzkitarat agertzeko, ba kopla, ez kopla...

Egiten dugu ahal duguna; hura baita zonbeit aldiz, ez agertzea chuchen aldi bat bederen gabe on ez direnak agertzeko.

Hala nola berritan bi aneiek gerla tokotik igorri batzu (!)... lerro buruetan hitz hegi batzu (*rimes* baitio frantsesak) hauk bezala : gure*kin*, aita*ri*, be*thi*, et*si*, ukha*nik*, eta bertze,... hamarretarik bederatziak elgarrekin kolpeka ari direla, munduko borondaterik hoberenarekin, ez ditzazkegu eskual koplatzat hemen ezar.

Eskuarari ohartuak diren arrotzek gutaz irri egin lezakete.

Hitzen ezkina eskuin hura bat duzu;. bertzerik bada kopletan ikusteko, neurtzeko, haztatzeko.

Lots-arazi ez ginuke nahi borondate onik; bainan zentzu chuchenak ere behar du berea, hein bat... Egun zortzi, gogotik, eman ahalko ditugun kopletarik zonbeit.

# HAN-HEMENKA

## OTHE EPHAILE

Beljikatik hunat jin langile hoik ez direla, zonbeit segurik, hanbatekoak, omen baitiote, lantegiak ere hoitarik batzuek ahal direnak dituzte hatzemaiten.

Letarik bat, hiritar *Icpizier* bat gerthatu dela erran daukute Bardoztar laborari etcheko-jaun baten baithan muthil, .. ahal zuenaren egitera zagola.

Bainan zer nahuzue? Behi bat ez aitzur bat ez bide zuen egundaino hunkitu.

Hara eta biharamunean, lehen lan, igortzen dute larrerat, gizagaichoa, berik, othe ephaitera, sega bizkarrean.

Norat joan ez baitzakien, ez nola loth lanari, erraiten dio nausiak, doala holatsuko tokira; ondo hetako bertze langile batzuek erakutsiko ziotela heien etcheko larrea non den.

Badoa; mozten ditu han nonbeit bizpalau othe ondo, eta sega bizkarrean, otheak besazpian, heldu da ilhuneko etcherat, eguna betherik, ..zer gogoan othe ?

## GERLATIK URRUN

Han-hemenkako berri entzun eta irakurtuak oro behar baginitu aste oroz *Eskualdun* huntan eman, dugun baino langile gehiago behar ginuke; bainan guk ere, irakurtzale onak, zuek bezala, orotan orok bezala, gure langiletarik gehienak, hoberenak han baititugu, suan, Hango on ez diren bakar batzuño baizik ez hemen.

Dena dela, eztakit zerk orhoit-arazten nuen gerla egun lazgarri hautako bi orhoitzapenez, elgarren ondoan ezarriz biak, askitto gogoetagarri baitire.

Errient dohakabe bat hilik, bere eta bertzen kaltetan erlisionearen etsaiekilakoga zena osoki, araberan ehortzi zuten; bere kideko lagun zonbeiten laudorioak hilerrietan, hobirat sartzean baizik, etzuen ukhan deus laguntzarik.

Erran gabe doana, lehen eta azken laudorio, eman ziona, eta goraki gero, hanche ,bera bezen gorri eta are gorriagoko bertze errient batek, izan zen : erlisionearen kontrako herra. Erraiterainokoan : gizonarentzat mundu huntan zakien gauzarik galkorrena dela, zer othe, zuen ustez! — *Erlisionea*!

Gerla egun hautako solasa zen ba! Deus onik diren guziak, gizontasunaren piru bat chuchenik duten guziak, ez izanik ere osoki itzuliak, bederen ahalgez eta beldurrez ichilducheak direlarik, hola behar mintzatu, eta non? Zer toki eta zer orenean? Hil bati azken agurra egitean!

Urrun behar zen izan gerla tokitik, Han ez omen da nehor hola mintzo, ez errientik, ez bertzerik.

## GERLA TOKIAN

Etsaiari hurbil, suan hanche, gau eta egun herioarekin bekoz beko bizi direnek, nor nahi izan diten, koska buru gogor eta bihotz gabe zonbeitez bertzeak, bertzeta zaitzue mintzo. Trufa guti han Jainkoaz, ez jainkotiarrez; herrazko atheraldi are gutiago.

Zenbatek ez dute igorri beren etchekoer hango berriak hunat heltzearekin : « Bazinakite nor ikusirik nagon, gure herriko edo auzoko bi gizon, elgarri buruz buru jarriak, solasean ari, gochoki, botoila bat eta bi baso aitzinean; artetan hurrupa bat ahorat zeramatela!... goan erretora eta jaun errienta. »

Hogoi-ta bortz etsai, sekulan elgarren etsai behar etzitazkenak, baketurik dago gerla hau!

Orotako bake hunkigarrienetarik da eta ederrenetarik apezaren eta errientaren arteko bake hori. Nork daki gerla toki hetan zonbat errient, aspaldiko urthetan mahain saindurat hurbildu etzirenek egin dituzten aurthen pazkoak eta oro, apezarekin bezala Jainkoarekin ere baketurik!

Ah! Gerlatik ondoko urthetan, luzaz, luzaz iraun baleza bake horrek! Hain. bertze ondorio nigarringarrirekin, zerbeit onik ere orduan ekarri luke gerlak.

# Ziberoan

## ATHARRATZE

Adiniala hel arauka, Basaburuko gizon gaztiak badouatza.

Ez da hoberik, behar die jouan.

Etsaia aitzinian diano, Frantziak behar du azkar egon, eta, azkar egoitekoz, behar dutu indarrak arraberrikatu. Orok ikhousten duguna da gogoua zouñen bero, begithartia zouñen botz, elhia zouñen ozen, mouthiko horik oro abiatzen diren, bat gibel egon gabe. Besta batetarako khumitia balie, ez ahal lirateke gozouanago.

Badouatza Frantziaren amodiouan eta Aleman thorpiaren aiherrian.

Agian, dembora luze gabe, ekharriren deikie gain-hartu osouaren berria.

## ALTZAI

Houna heben hiletarik phiztu baten berria. Aguer Jean, haste hastetik gerlarat jouanik zena, hilik zen aspaldian mundu ororen oustez ,bai eta aitzindarien arabera ere. *Ofizielki* hil mezia etchenkouer igorririk izan zen. Hil ouhouriak egin zutien Altzain.

Eta horra egun noun berria jin den Aguer Jean, Altzaiarra Alemanian presouner dela.

Etchenkouen plazera ez da tchipi.

Eta horrek emaiten du hanitchi, aspaldian ichil dauden eta hilik direlakouen berriz ikhousteko esperantza.

## SOHOLUZIA

Hau ere houn da agertzeko.

Herriko *madama* ezagutienetarik bat abian zen atzo nourapait buruz;etzouan ja Ameriketarat.

*Halte là!* egin dero jandarma batek, garala heltzen zelarik; *vos papiers?*

Jin posible!a! *madama* harek etzutian behar ziren paperak sakolan.

Badakizieia kontentik izan dela legeko gizonak erran deronian. Demi tour!

Gogo hounez egin du *demi tour* eta en avant .. arche .. etcherat.

Harriturik izan da *au violon* ezarten ziela.

Egiazki, egiazki, zer demboretan bizi gira? Ez gireia arren haizu herri aizouala jouaitera erran delako *vos papiers* hourak sakolan ukhen gabe?

Aleman karkano handiek zer erriak egin lirozkeien, aizina balie, gu chokho hoietan, hola nahasirik ikhoustez!

## BASABURU

Ikhousi dugu egun hoietan gizon bat kondenaturik izan dela *embusqué* erran derolakoz beste bati. Arte batez, *embusqués* hanitch izan da kaseten arabera; orai ez da arauz ihize haietarik haboro.

Bena *embusqué* hitz hori ekharririk bada elhe eskerniozko eta damu egile bezala, zer lizateke ahokaldi hau : *Crosse en l'air*! Khechu bouilta batez nourbaitek eman balizo aizouari izen garattikoua, *Crosse en l'air*, zer gaztiguren bidetan nourbait houra jar leiteke?

Zer hel ere, houn lizateke horren jakitia.

## ALEMAN ZARRA

Bazaizicia othoi?

Alemanek orai dioie: Ez dugu hastio Rusia, hugu dugu gain gañetik Anglaterra, bena maite dugu Frantzia.

Eskerrik hanitch !

70eko gerlaz geroz, Alemana arizan da, thaik gabe, gerlako tresna adelatzen, eta ihourk asmatzen ahal ez dutian urhats ororen hartzen, Frantziaren erhausteko chedetan. Etzian etsaik aiphatzen, Frantzia baizik; Frantzia zian nahi errouetarik jauz erazi.

Eta egun zertan da?

Bertz handiala errun du. Hatsa baraturik, erorteko mugula da. Oihuz ari da orai Frantzia maite diala.

Zer briganta!

Zerbait amets baluke Frantziako gizon nahasi batzuren bere althe jeik erazteko eta, hourak berme, harentako houn lizatekian bake baten ardiesteko.

Berantegi du; bralian sarthu da ; illaburski jakinen du noula hantik jelkhiren den.

## BAZKOUAK EGITZIE

Eniz mintzo judio bati ez turko bati, ez protestant bati, ez sinhesterik ez dian bati.

Mintzo niz zouri, batheiaturik zirena, aita eta ama katolikouen semia, khiristitarzunari mundu hountan jarraiki behar duzuna.

Ourtheko eginbiderik handiena da Bazkouen egitia : zoure aitzinekouek adelatu deizien bidiari jarraiki zite : egitzu zoure Bazkouak.

*Tranchée*-etan ba'imbazia, ez zitiala buhurt Jinkouak entzunerazten deizun dei eztiari. Ez deia gocho prest izatia bethi arrichkian denaren?

Soldado batek aumonierari erraiten zeion haitzina : » Bihar banouazu lehen herrokalat : nahi nikezu jouan gabe garbialdiñi bat egin.

Horren gisa egizu : balinbadu ere ourthe hanitch ez zirela Bazkouez orhitu, aourthen duzu ourthia, orai duzu phuntia eginbide handi horren bere ouhourezko lekhian arra-ezarteko.

Ez balinbazira *Tranchée*-etan, ez balinbazira ere soldado, zoure Bazkouak egitzu Jinkouaren benedizionen gutara eraitz erazteko.

Ez duzia senditu zihaourtan destrempu bat, kasete-tan ikhoustez hainbeste populu *neutrek* ez dekiela zer nahi dien ?

Botzek orok goure saihetsialat deitzen dutie : alde batetik justiziak, bestetik intresak.

Entzuten die eta han diagotza zankhakan. Khiristi semia, Elizaren botz eztiak deitzen zutu zu ere. Etzitiala egon *neutre* .. Tziaouri, ez egon zankhakan; tziaouri zalhe aphezak saldoka beitouatza soldado.

Igaran ourthian menturaz mugan baratu zira; azken urhatsa ez duzu egin okasione houn baten mentsian : aourthen edo sekula, baduzu parada arra-berriz khiristien herrokan sartzekoua : ez zirate horrengatik gaizkiago ikhousirik ; egun oroz baratzen dutuzun aizo eta adichkide horriek ez dizie besterik egiten.

Bozkario handitan ezarriko dutuzu ikhoustez gerlak zoure bihotza hounki diala, orai artino adichkide bat baizik ezagutzen ez zien lekhian aitzinara khiristi houn bat ere badela : egitzu arren zoure Bazkouak bihotztoiki.

Bai, Eskualdun maitiak, egitzie orok zien Bazkouak.

Haboro-eziz goldiak ez beitu ogia biltzen, goure kanou famatiek ere ezin diroie berek segurta goure armaden bitoria.

Jinkouak erakousten deiku bitoria hori, bena nahi du gaithegin dizogun orok.

Zedi gitian arren goure Naousi soberanouaren deiari pharatzera, bortcha dezagun goure hutsen pharkatzera, eta ordian segur igorriko deiku goure drapeu ederrak aitzinetik ere ezagutzen dian bitoria hori.

Biba bethi Frantzia! sinhesten beitu esperantcha beitu, eta othoitz egiten beitu!

# ZER ETA ZER

## VIEIL-ARMAND

Badakizue, *Vieil-Armand*, izen hori zer den? Eztu aspaldi, nik badakidala. Berriz ere mihi gaichto batek erranen daut, holako zer hoieri *bertze guzien ondotik* nitzeiela ohartzen.

Baditake ; alta ez gira onthuz joanen araiz, hemendik harat. Ez balauku, adichkidea, niri eta zuri adinak handiagokorik ekartzen ,edo *eremaiten*!...

Dena dela, orhoit zarezte, nola gure soldado gaizoeri lanak eman dozkaten *Hartmanvillerskopf* deithu mendi kasko chut eta gora eta patar idor batek, alemanaren aztaparretarik ezin atheratuz? Behin erran ere bainautzuen hemenche nehor ezin hurbildua zela izen hori; hots, buruaren eta ahokoen gal-araztekoa, behin gogoan ezin kokotuz, gero ezin erranez; kasik erhi muthurretan aldizka berechiz erran behar : hart-man-vi-lerskopf, banazka.

Azkenean mendi hura, zerbeit ongi gostarik hartu ginuelako berria zen, egun hoitan; eta egia... Geroztik pozi on hori ausikian berriz ereman nahiz behin baino gehiagotan hortzak hautsirik baitagozi.

Guri bezala naski bertzeri ere nonbeit min egiten zioketen izen horrek. Egun hartarik batez norbeitek erraiten zaundaten soldadoek batheiatua zutela *Vieil-Armand*, errechkiago erraiteko.

Ba eta hartu izen-goitiak. Hartzekotan zela zinez, ez nuen sinetsiko, ez banu atzo irakurtu Paristar gazeta handi hoberenetarik batean; iduri deus ez, han emana, izen zaharraren orde, berria.

Hartuan hartu, aiher da gelditzeko.

## PETROGRAD

Gerlaren hastetik hunat halaher da izen bat bertzearen orde Rusian emana, hango hiri nausiari; ez, nahi baduzue, idorregiz, ezin aise ahoan chehatuz, bainan alemana ezin ikusiz begiko zikina baino gehiago.

*Sain!-Pétersbourg* izena Rusiako hiri nausiak *alemanki* emana zuela, kendu zioten, eta eman ordaintzat *Petrograd*.

*Petro* (Pierre) hango lehen Emperadore handiaren izena beira, eta garaitikoa khen.

Geroztik eztu hiriak bertze izenik, ikusten duzuena, Petrograd baizik.

Bertze griñarik ez baginu, guk eta gure gerlari lagunek, holako zonbeit izen gaitz edo hastioren ez-baia baizik!

Halere rusoen errabiak, beren hiri nausiaren izeneraino aldatze horrek erakusten du zer hatsean lothuak ziren hastetik, gerla huni.

Ondorioak hor dire, ez dutela rusoek, guk baino gehiago, buruan dutena zangoetan. Biba hek eta gurekilako bertzeak oro!


## Les Obligations de la Défense Nationale

Contre un versement de 95 fr. 05, on a droit à un coupon semestriel de 2 fr. 50 et au remboursement du titre à 100 fr., au plus tard dans dix ans. Compte tenu de la prime, le placement net de tout impôt, ressort ainsi à 5.60 %.

Le débiteur, c'est l'Etat, comme pour la rente ; et cet argent, qui reviendra à l'heure dite, sert la cause la plus sacrée puisqu'il lutte avec nos armées pour la victoire finale.

On peut souscrire en numéraire, mais ceux qui ont déjà libéré des rentes 3 1/2 % amortissables ou souscrit des bons de la Défense peuvent se faire reprendre ces valeurs par imputation sur le prix des obligations.

On souscrit en espèces, en rentes et en bons chez les receveurs des finances et les percepteurs et dans toutes les agences de la Banque de France. On peut en outre souscrire en numéraire dans les recettes des douanes, des contributions indirectes ou de l'enregistrement, et dans les bureaux de poste.

Si l'Etat fait de nouvelles opérations d'emprunt d'ici à 1918, on pourra souscrire au moyen des obligations.

*Maladies des Yeux*

Le docteur Laignier a repris ses consultations tous les jours de 9 h. à 12 h. 9, Rue Dalbarade, Biarritz.

## Maisons Recommandées

BAYONNE

**BANDAGISTE-COUTELIER** : Giral, Lesserteol, sr., 5, rue Argenterie.
**BIJOUTERIE** : Articles de religion, Diharce 3, rue Argenterie.
**CHARBONS ANGLAIS** : Worms et Cie, armateurs, 8, Allées Boufflées.
**CHAUSSURES** : Lorda, 17, rue Port-de-Castets.
**CHIRURGIEN-DENTISTE** : Iratchet Cantero, 1, rue Poissonnerie, face aux Halles.
**EPICERIE EN GROS** : Maison Urtasun, rue d'Espagne, 10-12. Téléphone N° 1.43.
**GRANDS MAGASINS du PRINTEMPS**, rues Port-Neuf et Gambetta.
**MEUBLES** : Maison Cassiau, 2, Quai Galuperie.
**QUINCAILLERIE** : A. Soulard, rue Argenterie.
**TIMBRES-PRIMES** de l'Union Bayonnaise et Régionale à réclamer dans toutes les Epiceries.
**TEINTURIER-DEGRAISSEUR** : Maison Lague, 4, rue Victor Hugo, Bayonne.
**THIERY** AINÉ & Cie **VÊTEMENTS** p^r Hommes Jeunes Gens et Enfants.
**VINS ET SPIRITUEUX** : Gracietat, rues Sabaterie et Vieille Boucherie.

## CREDIT LYONNAIS

**Baionan Libertateko Plazan**

**Crédit Lyonnais** Hartzen eta Pagatzen ditu

*AMERIKETAKO CHEKAK*

eta Paper suerte guziak.

Saltzen eta erosten ere ditu Paper eta titulu suerte guziak.

**Crédit Lyonnais** emaiten djtu publikoari behar dituen argitasun guziak tituluen erosteen gainean bai eta ere kontseilu hoberenak dirau ongi pausatzeko.

**BADA JAUN ESKUALDUN BAT**

Kredit Lioneko empleatua, gauza hortaz bereziki kargatua dena.

## HOTEL DES BASQUES & DU BRANDA

Etienne ROUDET, 217, cours St-Jean

BORDEAUX

Ene etchea garatik hurbil, ehun metretan gurenetik, ongi ezagutua da AMERIKETARAT joaiten diren guziez; hemen segur dire izaiteaz beren harat hunaten egiteko behar dituzten, errechtasun guziak!

Janak eta kamberak merke; jenden ahalaren arabera.

## Porcelaines et Cristaux

MAISON FONDÉE EN 1842

**Jules LACHIQUE**

BAYONNE

GROS — DÉTAIL

**Jules MONDRAN**

2, place Notre-Dame, BAYONNE

Oihaleria mota guzietarik

OROTAN BAINO KERYBAGO



*Le Gérant* : E. DUBOURDIEU.
Bayonne, Imprimerie Fossez.